

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Lanbide Heziketako onarpen prosezua

– Laguntzarako dokumentua –

2026ko Maiatza



1 Hitzaurrea1

2 Prozeduraren faseak1

2.1 Erregistro-fasea2

2.1.1 Posta elektronikoko kontua/pasahitza erregistratu2

2.1.2 Pasahitza gogorarazi5

2.2 Sarbide eskaeren bilketa6

2.2.1 Erabiltzailearen konexioa6

2.2.1 Eskaeraren datuak bete9

2.2.2 Eskaera gorde / Eskaera ikastetxera bidali / Eskaera berreskuratu24

2.2.3 Erantsitako dokumentazioa zuzendu25

2.2.4 Zirriborroa inprimatu / Eskaeraren frogagiria25

3 Esker ematea.25

1 Hitzaurrea

Lanbide heziketa. Heziketa zikloen onarpen eta matrikulazioa atalean, Hezkuntza Sailak

[LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua](#)

web-orria gaitu du herritarrek Lanbide heziketako heziketa-zikloen onarpen-eskaera Interneten bidez egin dezaten. Agiri honetan, beraz, eskaera hori egiteko zer urrats eman behar diren ikusiko duzu.

Hauek dira nabigatzaile gomendatuak: Mozilla Firefox eta Google Chrome.

2 Prozeduraren faseak

Prozedurak 2 fase ditu:

1. **Erregistro-fasea:**

Hezkuntza Sailean posta elektronikoko kontu bat erregistratzeko aukera ematen die herritarrei (sartzeko identifikatzaile gisa), eta kontu hori onarpen-eskaeraren prozesu osoan zehar erabili ahal izango dute.

2. **Eskaera-fasea:**

Lanbide heziketako osoko modalitatearen onarpen-eskaera egiteko aukera ematen die herritarrei, eta halaber, sortutako eskaerak kontsultatu, aldatu edo/eta ezabatzeko aukera izango dute.

Era berean, eskaeran sartutako datuak eta/edo erantsitako agiriak aldatzeko aukera ematen du.

Eskaerak uneoro kontsultatu ahal izango dira.

2.1 Erregistro-fasea


Erregistro-faseak posta elektronikoko kontu bat adierazteko aukera ematen die herritarrei, modu horretan, ondoren onarpen-eskaeren bilketa-prozesu osoan (berria) eta mantentze-prozesuan (kontsulta, aldaketa eta ezabaketa) zehar erabili ahal izateko.

Posta elektronikoko kontu bat erregistratzeko prozedurak ondorengo urratsak ditu:

2.1.1 Posta elektronikoko kontua/pasahitza erregistratu

Hezkuntza Sailaren

Lanbide Heziketa



Informazio orokorra	LHko Sarbidea	Lanbide Arloak	Hezkuntza Eskaintza	Egutegia	Lotura erlazionatuak	Ikastetxe pribatu ez unibertsitarioak baimentzea
---------------------	---------------	----------------	---------------------	----------	----------------------	--

LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua



[Izen-emateko Sarbidea](#)



[Onarpena eskatzeko laguntza-gida](#)
[Ikasgunean erregistratzeko laguntza-gida](#)



[Zentroyen Bilatzailea](#)

- Hasiera

2026-2027 ikasturterako LHko plazak esleitzeko prozesua [2026ko apirilaren 16ko AGINDUAK](#) arautzen du. Hezkuntzako sailburuaren 2026ko apirilaren 16ko AGINDU horretan, 2026-2027 ikasturterako egutegia ezartzen baita eskabideak aurkezteko eta onarpen- eta matrikula-epeetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuek eskaintzen dituzten hezkuntza-sistemako ziurtagiri profesionali (C graduak), lanbide-heziketako zikloei (D graduak), espezializazio-ikastaroei (E graduak) eta espezializazio-programei dagokienez, eta ikastetxe horietarako onarpen- eta matrikula-jarraibideak onesten baitira, irakaskuntza horiek eskaintzen dituzten ikastetxe guztietan eskaerak grabatzeko eta matrikula egiteko jarraibideak onestez gain.

OHAR GARRANTZITSUAK:

Lanbide Heziketako ziklo baten esleipen prozesuan parte hartu nahi duten interesdun guztiek aurreinskripzioa egin behar dute.

Nahi beste aurreinskripzio egin daitezke, ez dago mugarik. Zenbat eta eskaera gehiago egin, orduan eta aukera handiago dago plaza bat lortzeko. Horregatik, gubxienez, 10 eskaera egitea gomendatzen dugu.

Aurreinskripzioa egiten ez dutenak ezohiko epean baino ezin izango dira matrikulatu eta bakar-bakarrak esleitu gabe gelditu diren plazetan.

[LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua](#)



Orri horretan hurrengo banerrean sakatu

[< Hezkuntza Saila](#)

Lanbide Heziketa



Hezkuntza Saila

Informazio orokorra ▾	LHko Sarbidea ▾	Lanbide Arloak	Hezkuntza Eskaintza	Egutegia	Lotura erlazionatuak ▾	Ikastetxe pribatu ez unibertsitarioak baimentzea
-----------------------	-----------------	----------------	---------------------	----------	------------------------	--

LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua


[Izen-emateko Sarbidea](#)

[Onarpena eskatzeko laguntza-gida](#)
[Ikasgunean erregistratzeko laguntza-gida](#)

[Zentroen Bilatzailea](#)

Esteka hau sakatzean, eskaerak elektronikoki izapidetzeko aukera ematen duen ataria, Ikasgunea izenekoa, agertuko da.

Atariko identifikatzeko eta erregistratzeko orrialdetatik [Izen ematea](#) estekan klik eginez erregistratzeko prozesuan sartzen da

- **Aita/Ama/Legezko tutorea:** Izena eman dezakete matrikulan ikasle baten tutore legala bezala baldin badago.
- **Ikasleak:** 14 urte baino gehiagoko ikasleak eta ikastetxe batean matrukilatuta daudenak.

Bestalde, edonor erregistra daiteke norberaren ziurtagiri akademikoak kontsulta egiteko.



Erregistroa - Identifikazio datuak
Izen-ematearekin jarraitzeko eskatutako ondorengo datuak sartu itzazu

• Dokumentu mota
NAN

• NAN/AIZ
(9999999Z edo Z999999AA)

• Iraungitze data
(YYYY/MM/DD)

• Jaiotze data
(YYYY/MM/DD)

• Testu egiaztapena (Beharrezkoa)
6613

Baliaztzen dut eman ditudan datuak benetakoak direla eta ez nagoela beste pertsona baten datuak ematen.

Ezertatu Jarraitu

- Identifikazio dokumentuaren mota. NAN/AIZ, egoitza baimena edo HNA erabili daitezke.
 - **NAN/NIE edo egoitza baimena ez baldin badute, erabiltzailea ikastetxera joan behar da HNA eskatzera** (Hezkuntza Nortasun Agiria).
 - NAN dokumentuaren iraungitze data eta jaiotze data jarri behar dira.
 - Egoitza baimena edo HNA aukeratzen denean izena emateko, ez du iraungitze data edo
 - Adindunak bere legezko tutoreari bere informazioa ikusteko baimena eman die.
- Egiaztapenaren testua irakurezina denean, "refresh captcha" botoia sakatuz (🔄) irudi berria sortuko da.
- Emandako datuak errealak direla eta ez dagoela beste pertsona baten lekua hartzen baieztatu behar da.

“Jarraitu” eman eta gero egoera hauek eman daitezke:

- Pertsona ondo identifikatu egin da eta datuak hurrengo pantailan agertzen dira. edo
- Erregistroak errorea ematen du eta aplikazioak honen inguruan informazioa erakusten du:
 - Sartutako datuak ez dira zuzenak. Berrikusi dokumentuaren zenbakia zuzena dela, baita jaiotze-data eta iraungitze-data ere.
 - Ikaslea adinduna da eta ez dauka bere datuak ikusteko baimenik.
 - Bere datuak ez datoz bat ikasle baten tutore bezala.
 - Bere datuak ez datoz bat.
 - Ez dago sistema akademikoan erregistratuta.
- Errorea orokorragoa bada sistemak hurrengo mesua erakusteko du:
 - Sistemak akats bat gertatu da. Saiatu geroago.

Behin datuak baliozkotuta daudenean, hurrengo pantaila agertuko da pertsonaren datuekin. Erabiltzaileak ezin ditu aldatu grisez agertzen diren datuak



Erregistroa - Datu pertsonalak

<input type="text"/>	<input type="text"/>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

Datu akademikoak.

Sar ezazu 2020/2021 ikasturtearentzako informazioa

* 2020/2021 ikasturtean matrikulatuta

 Ez Bai

Atariko sarbideko zure datuak konfiguratu

Geroago atarian identifikatzeko erabiliko duzun posta elektronikoa sar ezazu.

<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>

* Posta elektronikoa hau Hezkuntza Sailarekin kontaktua izateko posta elektronikoa bezala erabili nahi duzu?

 Ez Bai

Ezetzatu

Amaitu

Pantaila honetan:

- Adierazitako ataletan telefono zenbakiak sartu behar dira eta hizkuntz bat aukeratu behar da.
- Datu akademikoak: Hortik ikasturte honetan matrikulatuta gauden ala ez aipatu dezakegu. EAEko ikastetxe batean matrikulatutako ikasle baten tutorea garen ala ez ere adierazi ahal izango dugu.
- “Helbide elektronikoa” hutsunea daukagun baliozko helbide elektronikoarekin bete behar dugu, ala ere “pasahitza” eta “pasahitza berretsi” aukeretan. “Mezu elektronikoa hau bera erabili nahi duzu sailarekin harremanetan jartzeko mezu elektronikoa gisa?” aukeran, posta bera erabil dezakezu atarirako eta sailarekin harremanetan jartzeko, edo, bestela, bi posta desberdin izan ditzakegu. “Ez” aukera hautatuz gero, beste posta bat izango dugu Hezkuntza Sailean. “Bai” hautatuz gero, atarian sartzeko erabiltzen den posta eguneratuko da.

“Amaitu” botoia sakatuz gero leiho bat irekiko da, eta adierazitako telefono mugikorrean jasotako sei digituko zenbakia han sartu behar izango da, hutsunean, erregistroa amaitu ahal izateko.


Erregistroa

Erregistruarekin bukatzeko sar ezazu *****666 mugikorrean jaso duzun 6 zenbakiko kodea (Kodearen bidalketa egingo den mugikorra ez da guztiz erakutsiko segurtasun arrazoiengatik).

Prozesua bukatzean erabiltzailea ikasgunea atarian erregistratuta geratuko da eta hasi ahal izango du saioa identifikazio pantailatik.


2.1.2 Pasahitza gogorarazi

Zure pasahitza ahaztuz gero, “**Pasahitza ahaztu duzu**” sakatu beharko duzu.



Nabarmentzen dugu

Aukera hori hautatzean, eskuinean agertuko dira betetzeko bi atal. Lehenengoan korreo helbidea sartu behar dugu eta bestean eskatutako testu egiaztatena.



Gero leiho bat agertuko da, eta bertan pasahitz berri bat jarri ahal izango dugu.

2.2 Sarbide eskaeren bilketa

Eskaerak bildu eta mantentzeko (kontsulta, aldaketa eta ezabaketa) prozedurak honako urratsak ditu:

2.2.1 Erabiltzailearen konexioa

Erabiltzailea, identifikazio eta erregistro orrialdetik bere helbide elektronikoko eta pasahitza erabiliz, atariko datu pribatuaren gunean sar daiteke.

Izena eman!

Erregistratu, zeure profila sortu eta horrela erosoago nabigatu.

Posta elektronikoko helbidea

usuario@email.com

Pasahitza

.....|

Gogorarazi

Sarrera sinadura

[Sortu kontua](#) [Pasahitza ahaztu duzu](#)

Aurrez sartutako telefono zenbakia baliozkotzeko eskatuko du. Ezin izango gara sartu telefonoa balioztatu arte.

The screenshot shows the 'ikasgunea' website interface. At the top, there is a navigation bar with the logo and various menu items like 'HIZKUNTZA: ES EU', 'Familia/ikasleak', 'Irakasleak', 'Ordezlagunea', and 'euskadi.eus'. Below the navigation bar, there are several links: 'Zentroen bilatzailea', 'Ikastetxe bakoitzaren helbide-gertutasunarengatik baremoaren puntuak', 'Agregako baliabideak', 'Irakurgunea - Irakurketa Plana', 'Poner calificaciones [BETA]', 'pwa', and a user profile icon labeled 'Nomb'. The main content area is titled 'Mugikorraren baliozkotzea' and contains a form with a text input field labeled 'Telefono mugikorra', an 'Ezetzatu' button, and a 'Balioztatu' button. Below the form, there is a small note: 'ikasgunea atarian sartzeko sar eta baliozkotu ezazu zure mugikor zenbakia'.

Nahi dugun telefono zenbakia sartuta, balidatzeari ematen zaio, eta 6 digituko kode bat iritsiko zaigu. Kode hori agertuko den pantailan sartu behar da.

Kodea sartu eta amaitu botoia sakatu ondoren, aplikazioan sartuko gara.

Onarpen-eskaera baten alta emateko, sartu Administrazio-prozesuak eta laguntzak/ **Onarpen-eskaerak** atalera, .



Hastapen

Aldatu datuak

Administrazio-prozesuak eta laguntzak

Sarbite Frogen eskaera eta lehiaketak

Onarpen eskaerak

Bekak

Ebazpenak

Espediente akademikoa

Jakinarazpenak

 LH Osoa

Lanbide heziketako onarpen-**eskaera baten alta emateko**, botoia sakatu beharko duzu:

Hasiera

Aldatu datuak

Administrazio-prozesuak eta laguntzak

Sarbite Frogen eskaera eta lehiaketak

Onarpen eskaerak

Bekak

Ebazpenak

Espediente akademikoa

[Onarpen eskaerak](#)

Hasiera

Aldatu datuak

Administrazio-prozesuak eta laguntzak

Sarbite Frogen eskaera eta lehiaketak

Onarpen eskaerak

Bekak

Ebazpenak

Espediente akademikoa

Jakinarazpenak



Prueba Centro Ultimo -

HNA.: 2017287H

Eskaeren zerrenda

Eskaera berri bat egiteko, egin klik dagokion aukeran (Eskaera ez dago egokituta mugikor edo tableta batean behar bezala ikusteko):

 LH Osoa

Aldez aurretik eskabideren bat egin baduzu, goialdean eskabideen zerrenda agertuko zaizu.



Prueba Centro Ultimo -

HNA.: 2017287H

Eskaeren zerrenda

egindako onarpen eskaeren erlazioa:

ESKAERA DATA	IZENA	MAILA	IKASTETXEA	EGOERA
04/05/2022	xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx	LH OSOA	CIPIF Somorrostro LHPI	Notak ekartzeko zain

Eskaera berri bat egiteko, egin klik dagokion aukeran (Eskaera ez dago egokituta mugikor edo tableta batean behar bezala ikusteko):

 LH Osoa



2.2.1 Eskeraren datuak bete

Pertsona bakoitzak Lanbide heziketako onarpen-eskaera bakar bat egin dezake.

Eskaera bakoitzean nahi adina aukera eskatu ahal izango da, lehentasun-ordenaren arabera zenbakituta. Eskera bakoitza zentroa, zikloaren izena, hizkuntz eredua (A, B edo D) eta txanda (goizez, arratsaldez edo gauez) zehaztu beharko da.

Eskari desberdinak direla ulertuko da, aurreko elementuetako guztiak eta bakoitza bat ez datozenean.

Gogoratzen da, 10 aukera baino gutxiago eskatzen badira, plaza bat lortzeko aukerak era adierazgarrian txikiagotzen direla.

LH Osoa botoia sakatzean, ondorengo pantaila aurkezten da:

Hor, atarira konektatutako pertsonaren datuen zerrenda bat erakusten da, baita haren tutoretzapean daudenen datuak ere, Hezkuntza Sailak dituen datuen arabera.

EAE n matrikutatutako ikasle baten tutorea bazara eta ikasle hori zerrenda honetan agertzen ez bada, jarri harremanetan gaur egun ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin, ikastetxeak zu erregistratu zaitzan ikasle horren tutore gisa.

Ikaslea, zeinentzat eskaera egin nahi den, zerrendan badago, hautatu eta

Identifikazio-agiri gisa NAN edo AIZ aurkeztuz gero, baimena ematen dut nortasun-datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuaren bidez haren datuak egiaztatzeko.

laukitxo markatu.

"Eskera hasi" botoiari ematean, eskabidea jasotzeko inprimakia agertuko da.

Inprimaki hori aurrez kargatuta egongo da, Hezkuntza Sailean alde aurretik erregistratutako datuekin.

Oinarrizko datuak, hala nola identifikazio-dokumentuaren mota eta zenbakia, izena eta jaiotze-data, ezin izango dira aldatu alde aurretik erregistratuta badaude (eremu horietakoren bat hutsik badago, osatu egin beharko da; adibidez, NAN-zenbakia gehituta, halakorik ez badago); aitzitik, gainerako datuak berrikusi eta eguneratu egin beharko dira.



Eskaerak datu-multzoa blokeetan taldekatuta dauka era honetan:

1. **Eskaera datuak: 2026-2027** ikasturtea eta aurreko pausoan aukeratutako eskaerari dagokion maila eta modalitatea ikusiko dira.

Eskaera datuak

Kurtsoa: **0000-0000+1** Maila: **LANBIDE HEZIKETA OSOA**

2. Ikaslearen datuak:

Ikaslearen datuak

* Dokumentu mota: NAN	* Dokumentuaren zenbakia: [redacted]	Atzerritar nortasun txartela: [redacted]	* Jaioteguna: 1959/03/01
Hezkuntzaren nortasun agiria: [redacted]			
* Izena: [redacted]	* Lehenengo abizena: [redacted]	Bigarren abizena: [redacted]	* Sexua: Gizona
* Sakelako telefonoa: [redacted]	* Telefonoa: [redacted]	* Posta elektronikoa: gantxegiburru@gmail.com	
* Nazionalitatea: [redacted]	* Jaiotze-herria: [redacted]	* Jaiotze-probintzia: [redacted]	* Jaiotze-udalerria: [redacted]
* Lehen hizkuntza: [redacted]	* Korrespondentzia hizkuntza: [redacted]		
* HPB (hezkuntza-premia bereziak) <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/> Bai		Errendimendu handiko edo maila handiko kirolariak: <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/> Bai	
		Minusbaliotasuna: <input checked="" type="radio"/> Ez <input type="radio"/> Bai	

- 1) **Dokumentu mota, dokumentu zenbakia eta jaioteguna:** eskaeran sartzean sartu diren datuak izango dira. Eta ezin daitezke aldatu.
- 2) Ikaslearen **izena, lehenengo abizena eta bigarren abizena.**
- 3) **Sexua:** derrigorrez ikaslearen sexua adierazi.
- 4) **Sakelako telefonoa eta telefono finkoa:** ikaslearena edo bere aita, ama edo legetutorearena, ikaslearen kokapena errazteko helburuarekin. **Bietako bat derrigorrez bete behar da.**
- 5) **Posta elektronikoa:** ikaslearen edo aita, ama edo lege-tutorearen posta elektronikoaren helbidea derrigorrez bete behar da.
- 6) **Herrialdea, probintzia eta jaiotze-herria:** ikaslearen herrialdea, probintzia eta jaiotze-herria derrigorrez bete beharko dira.
- 7) **Hizkuntza nagusia:** adierazi zein den ikaslearen komunikazio-hizkuntza ohikoena.
- 8) **Korrespondentzia hizkuntza:** laugarren erlaitzeko goiko aldean, ikastetxeak bidali litzakeen komunikazioak zein hizkuntzatan jaso nahi diren adierazi behar da.
- 9) **HBP adierazlea:** eskatzaileak ikasleak hezkuntza arreta berezia behar duela uste badu, aukera hau markatuz adierazi beharko du, ikastetxeak eta ordezkariak geroago hau berau egiaztatzen duten kontuan hartu gabe.
- 10) **Ikasleak errendimendu handiko programaren batean parte hartzen du:** Bai/Ez
- 11) **Ikasleak desgaitasunaren bat du:** Bai/Ez



3. Ikaslearen familia-bizilekua (ohikoa): ikaslearen ohiko bizilekuaren helbidea jartzea derrigorrezkoa da.

Ikaslearen familiaren bizilekua (erroldagiria bidez kreditatua)

* Herrialdea: España	* L.Historikoa/Probintzia:	* Udalerria:
* Herria:	* Kalea:	
* Ataria:	* Posta-kodea:	Eskailera: Solairua: Hitza:

- 1) **Herrialdea:** zerrendatik aukeratu derrigorrez.
- 2) **Probintzia eta Udalerria:** Espainiar estatuarentzat derrigorrez zerrendatik hautatu edo atzerritar helbideentzat (Frantzia) eskuz sartu.
- 3) **Herria, Kalea eta Ataria:** Euskadiko helbideentzat zerrendatik aukeratu edo Euskaditik kanpoko helbideentzat eskuz sartu.
- 4) **Posta-kodea:** Euskadiko helbideentzat automatikoki bistaratuko da (aurreko datuetatik abiatuta). Euskaditik kanpoko helbideentzat eskuz sartu.
- 5) **Eskailera, solairua, letra:** aukerakoa. Eremu horiek betetzea gomendatzen da etorkizunean posta bitartez eman daitezkeen komunikazio-prozesuak errazteko asmoz.

4. Aita, ama edo lege-tutorearen datuak: atal honetan ikaslearen lege-tutorearen datuak bildu beharko dira. Datu hauek eskatzailea adingabea izatekotan bete beharko dira.

Lege-tutorea pertsona fisikoa edo erakundea den arabera, bete beharreko datuak desberdinak izango dira.

*** Lege tutorea pertsona fisiko bat da:**

Aita, ama edo lege-tutorearen datuak

Ahaidetasuna: Aita	Lege-tutorea: <input type="radio"/> Ez <input checked="" type="radio"/> Bai		
Dokumentu mota: Ez dauka	Dokumentuaren zenbakia:	Atzerritar nortasun txartela:	Jaioteguna:
Hezkuntzaren nortasun agiria:	<input type="button" value="Egiaztatu"/>		

- 1) **Ahaidetasuna:** zerrendatik ikaslearen tutorearen ahaidetasun-mota hautatu beharko da.
- 2) **Tutorea:** Bai markatuta agertuko da.
- 3) **(NAN/AIZ) Mota, Dokumentu zenbakia eta jaioteguna,** edo **HNA eta jaioteguna.**

Derrigorrez bete beharko da:

- i. NANA eta zenbakia (8 zenbaki eta letra; tarterik gabe) edo Egoitza Baimena dagokion identifikazioarekin edo HNA.
- ii. Jaioteguna.

Datu hauek bete ondoren, "balioztatu" botoia sakatu eta gainerako datuak betetzen jarraitu.



Aita, ama edo lege-tutorearen datuak

Ahaidetasuna: Aita	Lege-tutorea: <input type="radio"/> Ez <input checked="" type="radio"/> Bai		
Dokumentu mota: NAN	Dokumentuaren zenbakia: 14602897J	Atzerritar nortasun txartela:	Jaioteguna: 1965/09/06
Hezkuntzaren nortasun agiria:	<input type="button" value="Egiaztatu"/>		
Izena:	Lehenengo abizena:	Bigarren abizena:	Sexua: <input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea
Nazionalitatea:			
Sakelako telefonoa:	Telefonoa:	Posta elektronikoa:	

- 4) **Izen-abizenak**, nazionalitate espainiarra duten tutoreentzat derrigorrez bete, atzerritarrentzat bigarren abizenik ez izatekotan zuriz utzi.
- 5) **Sexua**: derrigorrez adierazi.
- 6) **Nazionalitatea** derrigorrez bete,
- 7) **Sakelako telefonoa eta telefono finkoa**, bietako bat **derrigorrez bete behar da**.
- 8) **Posta elektronikoa**: derrigorrez bete

* **Lege tutorea pertsona juridiko bat da:**

Aita, ama edo lege-tutorearen datuak

Ahaidetasuna: Erakundea	Lege-tutorea: <input type="radio"/> Ez <input checked="" type="radio"/> Bai		
IFK:			
Izena edo izen soziala:	Harremanetarako pertsona:		
Sakelako telefonoa:	Telefonoa:	Posta elektronikoa:	

- 1) **Ahaidetasuna**: zerrendatik ikaslearen tutorearen ahaidetasun-mota hautatu.
- 2) **Tutorea**: adingabeko ikasleentzat derrigorrez lege-tutorea adierazi behar da, kasu honetan Bai adierazi.
- 3) **I.F.K.** derrigorrez jarri beharko da. 8 zenbaki eta letra, tarterik gabe.
- 4) **Izena edo erakundearen sozietate izena**.
- 5) **Harremanetarako pertsona**: derrigorrez adierazi.
- 6) **Sakelako telefonoa eta telefono finkoa**, bietako bat **derrigorrez bete behar da**.
- 7) **Posta elektronikoa**: derrigorrez bete behar da.

Behin datuak bete ondoren, lege-informazioa irakurri eta onartzen dela adierazi beharko da eskaeraren hurrengo orrialdera igaro ahal izateko.

* Irakurri eta onartu dut [Legezko informazioa](#)

Itxi

Hurrengo

“Hurrengo” sakatzean, ondorengo pantailara bideratzen gaitu eta bertan, eskatutako aukerak, baremazioarako datuak eta egiaztagiria sartuko ditugu.



Eskaera datuak
 Kurtsoa: nnnn-nnnn+1 Maila: LH OSOA Egoera: Bidaltzeke
 Ikaslearen Datuak: Abizena1 Abizena2, Izena

Eskatutako Ikasketak Baremazioa / Dokumentazioa

Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Eredua	Eleaniztazi	Egoera

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | **Berria**

5. *Eskatutako ikasketak lehentasun-ordenaren arabera*

“Kurtsoak” erlaitzean eskatutako ikasketak lehentasun arabera sartu. **Aukera bat gehitzeko**, Berria botoia sakatzean lerro huts bat agertuko da.

Eskaera datuak
 Kurtsoa: nnnn-nnnn+1 Maila: LH OSOA Egoera: Bidaltzeke
 Ikaslearen Datuak: Abizena1 Abizena2, Izena

Eskatutako Ikasketak Baremazioa / Dokumentazioa

Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Eredua	Eleaniztazi	Egoera
1								

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | **Berria**

Aukera bakoitzeko ondorengoa adieraztea beharrezkoa izango da:

- 1) **LH/probintzia:** Lanbide Heziketako zikloa egingo den ikastetxearen lurraldea adierazi.
- 2) **Udalerrria:** Lanbide Heziketako zikloa egingo den ikastetxearen udalerrria adierazi.
- 3) **Ikastetxea:** Lanbide Heziketako zikloa eskaintzen duen ikastetxea. Ikastetxearen izena idazten hastean, menu zabalgarrian, sartutako testuarekin bat datozen ikastetxe guztiak agertuko dira. Ikastetxe bat hautatzean, lurraldea eta udalerrria automatikoki beteko dira.



Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Eredua
Zarautz	CPES Escuela De Hostelería Aiala BHIP (Zarautz)	Sukaldaritza Eta Gastronomía - EMLH	Goizez	1.ELH	A
Zarautz	CPES Oteitza Lizeo Politeknikoa BHIP (Zarautz)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	D
Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	A

bilbao					
--------	--	--	--	--	--

- CPES Mikeldi BHIP (Bilbao)
- CPES Harrobia BHIP (Bilbao)
- CPES Sta. María De Artagan BHIP (Bilbao)
- CPEIPS Salesianos Deusto-M. Aux.-San. J. Bosco HLBHIP (Bilbao)
- CPEIPS Ángeles Custodios HLBHIP (Bilbao)
- CPES Ceinmark BHIP (Bilbao)
- CPES San Luis BHIP (Bilbao)
- CPES Hermanos Larrinaga S.L. BHIP (Bilbao)
- CPES Bagabiltza BHIP (Bilbao)
- CPES Cruz Roja BHIP (Bilbao)

- 4) **Heziketa zikloa edo espezializazio-kurtsoa eta txanda.** Zerrenda hauek aurreko pausoen hautatuko ikastetxeak eskaintzen dituen heziketa zikloekin eta txandekin beteko dira.
- 5) **Eredua:** eskatutako zikloa zein hizkuntza eredutan ikasi nahi den. Ikastetxeak, aukeratutako zikoarentzat eskaintzen dituen ereduak erakutsiko dira.
- 6) **Hizkuntza:** Ingelesez/frantsesez moduluak eskaintzen dituzten ziklo horientzat, ikasleak hizkuntza horretan modulu horiek ikasi nahi dituen hautatu egingo du.

Eskaeraren lehen aukerako ikastetxea eskaera entregatzen den ikastetxearekin bat etorriko da beti.

Nahi beste aukera sartu daiteke.

Behin aukera bat sartuta, aukera berri bat **gehitzeko Berria botoia** sakatu.

Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Eredua	Hizkuntza	Eqoera
1	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	A	

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | **Berria**

Eskaeran lerro bat ezabatzeko, ezabatu nahi den aukera hautatu eta Ezabatu esteka sakatu.



Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Ereduz	Hizkuntza	Egoera
1	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	A	
2	Gipuzkoa	Elgoibar	CIFP Maq.-Herramienta LHII (Elgoibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	D	
3	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	B	
4	Gipuzkoa	Zarautz	CPES Escuela De Hostelería Aiala BHIP (Zarautz)	Sukaldaritza Eta Gastronomía - EMLH	Goizez	1.ELH	A	

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | Berria

Gorde Itzuli Ikaslearen Datuak Inprimatu

Eskaeraren lehentasun ordena aldatzeko, ordenaz aldatu nahi dugun aukera hautatu eta

Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Ereduz	Hizkuntza	Egoera
1	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	A	
2	Gipuzkoa	Elgoibar	CIFP Maq.-Herramienta LHII (Elgoibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	D	
3	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	B	
4	Gipuzkoa	Zarautz	CPES Escuela De Hostelería Aiala BHIP (Zarautz)	Sukaldaritza Eta Gastronomía - EMLH	Goizez	1.ELH	A	

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | Berria

▲ gezia sakatu aukera gorantz mugitu nahi badugu edo ▼ gezia sakatu aukera posizio bat beherago jaitsi nahi badugu.

Aukera bat tartekatzeko, hori hautatu eta "tartekatu" esteka sakatu. Era honetan, hautatutako aukeraren gainean ilara bat gehituko dugu.

Aukerak sartu ondoren **Gorde** botoia sakatu horiek gordetzeko. Eskatutako azkenengo aukera "aldaketa" eran badago, gordetzeko, aldeaz aurretik taularen beste ilara batean sakatzea edo ilaran kokatzea eta ENTER sakatzea beharrezkoa izango da.

1	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Automatizazioa Eta Robotika Industrialia - GMLH	Goizez	1.GLH	A	
2	Gipuzkoa	Elgoibar	CIFP Maq.-Herramienta LHII (Elgoibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	D	
3	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	B	
4	Gipuzkoa	Zarautz	CPES Escuela De Hostelería Aiala BHIP (Zarautz)	Sukaldaritza Eta Gastronomía - EMLH	Goizez	1.ELH	A	
5	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Telekomunikazio- Eta Informatika-Sistemak - GMLH	Goizez	1.GLH	A	
6	Gipuzkoa	Eibar	CIFP Armeria Eskola LHII (Eibar)	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - GMLH	Goizez	1.GLH	B	

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | Berria

Ikastetxe publiko batean A, B eta D ereduetan eskaintzen den heziketa-ziklo bat eskatzen baduzu

- Ziklo hori A ereduaren eskatzen baduzu eta ziklo hori B ereduaren eskatzen ez baduzu, mezu hau agertuko da.



A ereduari eskatu dituzun ikastetxe eta ziklo konbinazio hauek B ereduari egin ditzakezu, ez da beharrezkoa euskara jakitea, eta B ereduari da irakasteko aukera handiena duena. Azkenean eskaintako aukera B ereduari bada, ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatzeko aukera galduko duzu.

Beraz, ziklo hori B ereduari ere eskatu, edo adierazi jakin badakiela azkenean eskaintzen den ereduari B ereduari bada ezin izango zarela ikastetxe eta eredu horretan matrikulatu.

- Ziklo hori D ereduari eskatzen baduzu eta ziklo hori B ereduari eskatzen ez baduzu, mezu hau agertuko da.

D ereduari eskatu dituzun ikastetxe eta ziklo konbinazio hauek B ereduari egin ditzakezu; B ereduari da irakasteko aukera handiena duena. Azkenean eskaintako aukera B ereduari bada, ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatzeko aukera galduko duzu.

Beraz, ziklo hori B ereduari ere eskatu, edo adierazi jakin badakiela azkenean eskaintzen den ereduari B ereduari bada ezin izango zarela ikastetxe eta eredu horretan matrikulatu.

Ziklo bakoitzeko, berariaz adierazi beharko duzu jakitun zarela ez duzula B ereduari eskatu

		Eskatutako Ikasketak			Barema / Dokumentazioa			
Lurraldea	Udalerrria	Ikastetxea	Zikloa	Txanda	Kurtsoa	Eredua	Eleaniztazu	Egoera
1	Bizkaia	Barakaldo	CIFP Nicolás Larburu LHII (Barakaldo)	LOGSE - Dietetika - GMLH	Goizez	1.GLH	A	
2	Bizkaia	Bilbao	CIFP Elorrieta-Erreka Mari LHII (Bilbao)	LOE - Laborategiko Eragiketak - EMLH	Goizez	1.ELH	D	

Tartekatu | Aldatu | Ezabatu | Berria

A ereduari eskatu dituzun ikastetxe eta ziklo konbinazio hauek B ereduari egin ditzakezu, ez da beharrezkoa euskara jakitea, eta B ereduari da irakasteko aukera handiena duena. Azkenean eskaintako aukera B ereduari bada, ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatzeko aukera galduko duzu.

Beraz, ziklo hori B ereduari ere eskatu, edo adierazi jakin badakiela azkenean eskaintzen den ereduari B ereduari bada ezin izango zarela ikastetxe eta eredu horretan matrikulatu.

Ez dut B ereduari eskatu, eta badakit CIFP Nicolás Larburu LHII (Barakaldo) ikastetxeko LOGSE - Dietetika - GMLH zikloa azkenean B ereduari eskaintzen bada, ezin izango dudala ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatu.

D ereduari eskatu dituzun ikastetxe eta ziklo konbinazio hauek B ereduari egin ditzakezu; B ereduari da irakasteko aukera handiena duena. Azkenean eskaintako aukera B ereduari bada, ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatzeko aukera galduko duzu.

Beraz, ziklo hori B ereduari ere eskatu, edo adierazi jakin badakiela azkenean eskaintzen den ereduari B ereduari bada ezin izango zarela ikastetxe eta eredu horretan matrikulatu.

Ez dut B ereduari eskatu, eta badakit CIFP Elorrieta-Erreka Mari LHII (Bilbao) ikastetxeko LOE - Laborategiko Eragiketak - EMLH zikloa azkenean B ereduari eskaintzen bada, ezin izango dudala ikastetxe eta ziklo horretan matrikulatu.

Eskabidea gorde ahal izateko edo ziklo horiek B ereduari ere eskatu beharko dituzu, edo adierazi beharko duzu badakizula ziklo hori azkenean B ereduari bakarrik eskaintzen bada ezin izango zarela ziklo horretan matrikulatu.

6. Eskaeraren lerroen egoerak

On line egindako eskaera aukera bat ondorengo egoeretatik igarotzen da:

Osatugabea: Datu pertsonalak besterik ez dira sartu, ez da/dira eskatutako aukera/k adierazi. Egoera honetan ezinezkoa da eskaera ikastetxera bidaltzea.

Bidaltzeke: datu pertsonalak eta gutxienez aukera bat bete egin da.

Bidalita: eskaera ikastetxera bidali da. Egoera honetan ezin dira datu pertsonalak aldatu. Horretarako, eskaera berreskuratzea beharrezkoa izango da eta berriro ikastetxera bidaltzea.

Aztertzen: eskaerak eskatzaileak erantsitako dokumentazioa dauka, baina ikastetxean oraindik ez dute dokumentazio hori balioetsi.

Dokumentazioa aurkezteko zain: ez da eskaeraren aukeran adierazi den mailarentzat aurkeztu beharreko dokumentazio guztia entregatu.



Notak ekartzeko zain: dokumentazioa erantsi egin da baina ez da barematzeko informazioa osatu.

Osatua: dokumentazio guztia aurkeztu da, ikastetxeak balioetsi egin du eta baremazioaren informazioa osatu egin da.

Eskaeraren aukeretako batek esleipen prozesuan parte hartu dezan, "osatua" egoeran egotea beharrezkoa izango da.

Eskabideak prozesuan parte har dezan, beharrezkoa da pertsonak ikastetxera "bidaltzea", Bidali botoia sakatuta, 2026/05/22a baino lehen (eskaerak jasotzeko epearen amaiera), eta nahitaezko dokumentazioa honako hau baino lehen erantsi izana:

- 2026/06/30, online bidaltzen badu edo ikastetxean bertan entregatzen badu.
- 2026/06/19, beste bidalketa-modu bat aukeratzen baduzu (Zuzenean, Correos,...).

"Baremazioa / Dokumentazioa" erlaitzean

Derrigorrezko dokumentuak		Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Minusbaliotasun ziurtagiria	<input type="button" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Errendimendu handiko kirolaria dela adierazten duen ziurtagiria	<input type="button" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
Baremazio irizpidea OROKORRAK					
Sarrera-proba mota	Grado med	(*) Erdi-mailako heziketa-zikloetarako sarrera-froga gainditu duelako ziurtagiria	<input type="button" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	
Sarrera-probaren nota EM					
EM LHko Titulazioa	LOE-Sukal				

Honako datuak aukeratzen dira:

- **Korrespondentzia hizkuntza:** ikastetxearen mezuak zein hizkuntzatan jaso nahi diren hautatu
- **Baremaziorako datuak**
 - A. **Oinarrizko mailako heziketa zikloak (D Gradua)**

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Aurkeztuta
Baremazio irizpideak: OROKORRAK					
DBHko azken kurtsoa EAEan egin duzu?	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>				
Ikasleak ikasitako DBH.ko azken kurtsoa	<input type="text"/>				
OLBrako Nota	<input type="text"/>	(*) Espediente akademikoaren fotokopia	<input type="button" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskatutako irakaskuntzak jarraitzeko hizkuntzaren ezagutza nahikoa al duzu?	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>				



Adierazi DBHko azken maila Euskal Autonomia Erkidegoan egin duen eta DBHko egindako azken kurtsoa.

Adierazi DBHko azken ikasitako kurtsoa 2., 3. edo 4. Den

Adierazi eskatutako irakaskuntzak jarraitzeko hizkuntzaren ezagutza nahikoa duzun

Nota, existitzen bada, ikaslearen espediente akademikotik abiatuta kargatu egingo da edo lehenengo aukerako ikastetxeak beteko du eskatzaileak aurkeztutako espediente akademikotik abiatuta. Eskatzaileak ezin izango du nota sartu, bakarrik ikusi ahal izango du beteta dagoenean.

Baremazio datuak osatzeko **epea 2026eko ekainaren 30ean** bukatzen da.

Plazen esleipen-prozesuaren xehetasun gehiago ikusteko [LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua](#) kontsultatu.

B. Erdi eta goi mailako heziketa zikloak (D Gradua)

1. **Sarbide mota**, zerrendatik abiatuta, eskatutako maila bakoitzarentzat (erdi maila eta/edo goi maila) lanbide heziketako ziklora sartzeko modua hautatu.

Erdi maila:

Sarbide mota

DBH

- DBH
- Oinarrizko Mailako LH
- Erdi edo Goi Mailako LH
- Zikloetako sarbide proba
- 2. mailako ziurtagiria
- Sarbide berariazko ikastaroa
- Unibertsitateko sarbide proba
- Beste titulazioak (659/2023 Errege Dekretua)

Goi maila:

- Batxilergoa
- Erdi Mailako LH edo arte plastikoetako Teknikari
- 3. mailako ziurtagiria
- GMko zikloetako sarbide proba
- Sarbide berariazko ikastaroa
- Unibertsitateko sarbide proba
- Goi Mailako LH
- Beste titulazioak (659/2023 Errege Dekretua)



Sarbide mota bat baino gehiagotik sartzeko irizpideak bete arren, horietako batetik bakarrik sartu ahal izango da. Sarbidea aldatzeko aukera dokumentazioa aurkezteko epea bukatu arte izango da. Epe hori 2026eko ekainaren 30a da.

Sarbide mota bakoitzarentzat, plaza kupo bat ezartzen da esleipen-prozesuan. Plazen esleipen-prozesuaren xehetasun gehiago ikusteko [LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua](#) kontsultatu.

2. Baremaziorako datuak:

Sartu beharreko datuak aukeratutako sarbide motaren menpe daude.

ERDI MAILA

○ DBH aukerarako

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
Baremazio irizpidea OROKORRAK					
Nola lortu duzu DBHko titulua edo baliokidea? (Zerrenda honetako bat aukeratu)	<input type="text"/>				
EMrako Nota	<input type="text"/>	(*) Erdi-mailarko espediente akademikoaren fotokopia	<input type="text" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	

2023/24an, 2024/25 edo 2025/26an DBHko 4. Maila gainditu duten ikasleek lehentasuna izango dute.

DBHko titulua Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloa 2022/23 ikasturtea baino lehen osatuz lortu baduzu, orduan ezin duzu DBHko sarbide-motaren arabera sartu, LH Oinarrizko Graduak sarbide-motaren arabera sartu beharko duzu.

○ Oinarrizko Mailako LH aukerarako

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
Baremazio irizpidea OROKORRAK					
Oinarrizko LHko Titulazioak	<input type="text"/>				
EMrako Nota	<input type="text"/>	(*) Erdi-mailarko espediente akademikoaren fotokopia	<input type="text" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>	

Eskatutako erdi mailako zikloarekin kideasuna duen LHko titulua egiaztatzen duten ikasleei lehentasuna emango zaie. [Kideasun zerrenda](#) Oinarrizko LH Titulu zerrendan egiaztatutako tituluak hautatu.

○ Erdi edo Goi Mailako LH aukerarako



Baremazio irizpideak: LOE - MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA - EMHZ

Sartzeko titulazioa	<input type="text"/>				
Sartzeko titulazio nota	<input type="text"/>	(*) Sartzeko behar den titulazioa edo baliokidearen bat edukitzea ziurtatzen duen dokumentua	Erantsi	<input type="checkbox"/>	

Baremazio irizpideak: LOE - MERKATARITZA JARDUERAK - EMHZ					
Sartzeko titulazioa	<input type="text"/>				
Sartzeko titulazio nota	<input type="text"/>	(*) Sartzeko behar den titulazioa edo baliokidearen bat edukitzea ziurtatzen duen dokumentua	Erantsi	<input type="checkbox"/>	

Eskatutako erdi-mailako ziklo bakoitzeko, zein erdi-mailako edo goi-mailako zikloarekin parte hartu nahi den eskatutako zikloaren esleipenean, adieraziko da.

Lehentasuna izango dute eskatutako zikloaren familia bereko ziklo batekin sartzen diren eskatzaileek.

o **Zikloetako sarbide proba aukerarako**

Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
Baremazio irizpidea OROKORRAK					
Sarrera-proba mota	<input type="text"/>				
Sarrera-probaren nota EM	<input type="text"/>				

Oharrak

Erdi-mailako edo goi-mailako zikloetara sartzeko proba gaindituta izateagatik sartzen den hautatuko da. Talde honetan erdi-mailako sartzeko proba gaindituta izateagatik sartzen direnak lehentasuna izango dute.

o **2.mailako ziurtagiri aukerarako.**

Baremazio irizpideak: LOE - MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA - EMHZ					
Sarbidea ematen duen 2. mailako ziurtagiria	<input type="text"/>				
Baremazio irizpideak: LOE - MERKATARITZA JARDUERAK - EMHZ					
Sarbidea ematen duen 2. mailako ziurtagiria	<input type="text"/>				

Eskatutako erdi-mailako ziklo bakoitzeko, zein ziurtagiri profesionalarekin parte hartu nahi den ziklo horren esleipenean adieraziko da.

Zikloa esleitzeko lehentasuna izango dute eskatutako zikloaren familia bereko lanbide-ziurtagiria aurkezten duten eskatzaileek.

- o *Erdi-mailako gainerako sarbide-motetan, eskatzaileak sarbidea egiaztatu beharko du, dagokion egiaztagiria erantsita, eta baremazio-irizpidea ikastetxeak aurkeztutako espedienteari buruzko informaziotik abiatuta sartuko duen nota izango da*

Lehentasun talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak, bere espediente akademikoan agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.



Nota, existitzen bada, ikaslearen espediente akademikotik abiatuta kargatu egingo da, edo lehenengo aukerako ikastetxeak beteko du eskatzaileak aurkeztutako espediente akademikotik abiatuta. Eskatzaileak ezin izango du nota sartu, bakarrik ikusi ahal izango du beteta dagoenean.

Baremazio datuak osatzeko **epea 2026eko ekainaren 30ean** bukatzen da.

GOI MAILA

○ **Batxilergo aukerarako**

Baremazio irizpideak: OROKORRAK					
Batxilergoko titulua homologatzeke daukazu?	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>				
Aukeratu ikasi duzun batxilergo modalitatea	<input type="text"/>				
GMrako Nota	<input type="text"/>	(*) Goi-mailarako espediente akademikoaren fotokopia	Erantsi	<input type="checkbox"/>	
Batxilergoko titulua lortu al duzu azken hiru urteetan <input type="text"/>	Bai <input type="radio"/> Ez <input checked="" type="radio"/>				

Batxilergoko ikasketak atzerrian egin badituzu, adierazi ikasketa horiek homologatzeke dituzun ala ez. Ikasketak homologatzeke badituzu, inskripzio-bolante gehigarria aurkeztu beharko duzu. Ikasketak estatuan egin badituzu edo atzerrian egin badituzu, baina ikasketa horiek homologatuta badituzu, adierazi:

- Egindako batxilergoaren modalitatea eta erakusten diren irakasgaien artean adierazi zein ikasgai ikasi dituzun.
- Azken hiru ikasturteetan batxilergoko titulua lortu baduzu.

○ **Erdi mailako LH edo arte plastikoetako teknikari aukerarako**

Baremazio irizpideak: LOE - SARE-INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA - GMHZ					
Sartzeko titulazioa	<input type="text"/>				
Titulua lortu al duzu azken hiru urteetan <input type="text"/>	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>				
Sartzeko titulazio nota	<input type="text"/>	(*) Sartzeko behar den titulazioa edo baliokidearen bat edukitzea ziurtatzen duen dokumentua	Erantsi	<input type="checkbox"/>	

Eskatutako goi-mailako ziklo bakoitzeko adierazi ziklo horren esleipenean zein titulorekin parte hartzen duzun eta titulazioa azken hiru ikasturteetan lortu duzun

Eskatutako zikloarekin kidesasuna duen Erdi Mailako titulua egiaztatu duten eskatzaileek lehentasuna izango dute. [Kidetasun zerrenda](#)

Erdi Mailako titulu zerrendan egiaztatutako titulua hautatu.

Lehentasun talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak, bere espediente akademikoan agertzen den notaren arabera ordenatzen dira



○ **3.mailako ziurtagiri aukerarako.**

Baremazio irizpideak: LOE - AUTOMOZIOA - GMHZ				
Sarbidea ematen duen 3. mailako ziurtagiria	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Baremazio irizpideak: LOE - SARE-INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA - GMHZ				
Sarbidea ematen duen 3. mailako ziurtagiria	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Eskatutako goi-mailako ziklo bakoitzeko adierazi ziklo horren esleipenean zein 3.mailko ziurtagiriarekin parte hartzen duzun.

Zikloa esleitzeko lehentasuna izango dute eskatutako zikloaren familia bereko ziurtagiri profesionala aurkezten duten eskatzaileak.

Nota, existitzen bada, ikaslearen espediente akademikotik abiatuta kargatu egingo da edo lehenengo aukerako ikastetxeak beteko du eskatzaileak aurkeztutako espediente akademikotik abiatuta. Eskatzaileak ezin izango du nota sartu, bakarrik ikusi ahal izango du beteta dagoenean.

Baremazio datuak osatzeko **epea 2026eko ekainaren 30ean** bukatzen da.

C. Espezializazio kurtsoak (E Gradua)

Baremazio irizpideak: LOE - IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN MANTENTZE-LANA - LHEK				
Espezializazio Ikastarorako sarbidea ematen duen titulazioa	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Titulua lortu al duzu EAEan azken hiru urteetan	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Espezializazio Ikastarora sartzeko nota	<input type="text"/>	(*) Espezializazio ikastarorako espediente akademikoaren fotokopia	<input type="text" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>
Baremazio irizpideak: LOE - IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURTASUNA - LHEK				
Espezializazio Ikastarorako sarbidea ematen duen titulazioa	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Titulua lortu al duzu EAEan azken hiru urteetan	Bai <input type="radio"/> Ez <input type="radio"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Espezializazio Ikastarora sartzeko nota	<input type="text"/>	(*) Espezializazio ikastarorako espediente akademikoaren fotokopia	<input type="text" value="Erantsi"/>	<input type="checkbox"/>

Ezpezializazio kurtso bakoitzeko zein titulaziorekin sartzen zaren eta azken hiru ikasturteetan titulazio hori lortu duzun adierazi beharko duzu.

Nota, existitzen bada, ikaslearen espediente akademikotik abiatuta kargatu egingo da edo lehenengo aukerako ikastetxeak beteko du eskatzaileak aurkeztutako espediente akademikotik abiatuta. Eskatzaileak ezin izango du nota sartu, bakarrik ikusi ahal izango du beteta dagoenean.

Baremazio datuak osatzeko **epea 2026eko ekainaren 30ean** bukatzen da.

Plazen esleipen-prozesuaren xehetasun gehiago ikusteko [LHko Heziketa-Zikloetako Onartzeko Prozesua](#) kontsultatu.



3. Derrigorrezko dokumentuak

Eskatzaileak eskaeran erantsi behar dituen edo eskaeraren lehengo aukerako ikastetxean aurkeztu behar dituen derrigorrezko dokumentuen taula aurkezten da edo dokumentuak baremazioarako irizpide bat egiaztatzen badu, irizpide horren alboan agertuko da



Derrigorrezko dokumentuak					
Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu		
NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia	Erantsi	<input type="checkbox"/>			
Minusbaliotasun ziurtagiria	Erantsi	<input type="checkbox"/>			
Errendimendu handiko kirolaria dela adierazten duen ziurtagiria	Erantsi	<input type="checkbox"/>			



Baremazioarako datuak					
Sarbidetaren EM		Zikloetako sarbide proba	Sarbidetaren GM		Teknikari titulua
Baremazio irizpidea	Balorea	Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
Baremazio irizpidea OROKORRAK					
Sarrera-proba mota	Grado med	(*) Erdi-mailako heziketa-zikloetarako sarrera-froga gainditu duelako ziurtagiria	Erantsi	<input type="checkbox"/>	

Eskatzailearen espedientea Hezkuntzaren datu basean existitzen bada, eskatzailea dokumentazio hori aurkezteaz salbuetsia egongo da.



Eskatzailea dokumentuak aurkezteaz salbuetsia egongo da "Salbuetsia" laukia markatuta duelarik.

Fitxategi bat hautatzean, bere izena "Erantsi" botoiaren gainean agertuko da

Erantsi nahi diren fitxategi guztiak hautatu ondoren, "Gorde" botoia sakatu beharko da fitxategiak sisteman bilduta gera daitezela. Une horretan, "Fitxategia" zutabean dokumentua ikusteko () eta ezabatzeko () ikonoak agertuko dira.

Derrigorrezko dokumentuak					
Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu		
NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia	 	<input type="checkbox"/>			
Minusbaliotasun ziurtagiria	fotocopiadoc.jpg Erantsi	<input type="checkbox"/>			

Balioztatu zutabean

- i. Ezer ez badago, horrek ikastetxeak oraindik dokumentua balioztatu ez duela esan nahi du.
- ii.  agertzen bada: ikastetxeak dokumentua berrikusi duela eta zuzenketaren bat egin behar dela esan nahi du.
- iii.  ikastetxeak dokumentua berrikusi eta balioztatu duela esan nahi du.

2.2.2 Eskaera gorde / Eskaera ikastetxera bidali / Eskaera berreskuratu

Eskaera osatu ondoren, “Bidali” botoia sakatu lehenengo aukerako ikastetxera bidaltzeko.




Eskaera bidali sakatu behar duzu 2026/05/22 baino lehen, orduan amaitzen baita online eskaeraren epea.

Eskaera bidali ahal izateko, beharrezkoa da gutxienez nahitaezko datu pertsonalak beteta izatea eta eskatutako ikasketak atalean gutxienez espezialitate bat eskatu izana.

Eskabideak prozesuan parte har dezan, beharrezkoa da pertsonak ikastetxera bidaltzea, Bidali botoia sakatuta, 2026/05/22a baino lehen (eskaerak jasotzeko epearen amaiera), eta nahitaezko dokumentazioa honako hau baino lehen erantsi izana:


- 2026/06/30, online bidaltzen badu edo ikastetxean bertan entregatzen badu.
- 2026/06/19, beste bidalketa-modu bat aukeratzen baduzu (Zuzenean, Correos,...).
-



Aukeratutako sarbide mota aldatu eta dokumentazioa osatu dezakezu 2026eko ekainaren 30era arte. Dena den aukeratu sarbide mota eta erantsi daukezun dokumentazioa eskabidea bidali aurretik. Eskaera bidaltzeko epea 2026eko maiatzaren 22an amaituko da.


Eskaera ikastetxera bidali ondoren, eskatzaileak ezin ditu datu pertsonalak aldatu.

Eskaeraren datu pertsonalak aldatu behar badira eskaera berreskuratzea beharrezkoa da **Bidalketa desegin** botoia sakatuz. Botoi hau ikastetxeak eskaera kudeatzen hasten ez den bitartean bakarrik egongo da erabilgarri.






2.2.3 Erantsitako dokumentazioa zuzendu

Zuzendu beharreko dokumentuak, "Oharrak" zutabearen,  ikonoa izango du.

Ikono hori sakatzean, ikastetxeak egin beharreko zuzenketaren inguruan jarritako oharrak ikusteko aukera dago.

Derrigorrezko dokumentuak			
Dokumentua	Fitxategia	Salbuetsia	Balioztatu
NAN, AIZ, Pasaporte edo beste nortasun agiriaren fotokopia	 	<input type="checkbox"/>	
Erendimendu handiko kirolaria dela adierazten duen ziurtagiria	Erantsi	<input type="checkbox"/>	

Aurreko dokumentua ordezkatzeko duen dokumentu berria eransteko, lehenengo dokumentua ezabatu beharko da. Horretarako, "ezabatu" botoia sakatu dagokion ikonoan . Ondoren, dokumentu zuzena igo.

2.2.4 Zirriborroa inprimatu / Eskeraren frogagiria

"Inprimatu" aukerak, PDF dokumentu bat lortzeko aukera ematen du, eskaeran sartutako datuekin.

Dokumentua bistaratzeko Acrobat Reader izatea beharrezkoa da. (Helbide honetatik jaitsi daiteke: <http://get.adobe.com/es/reader/>).



AURREINSKRIPZIOA EGITEKO ESKABIDE ORRIA/ HOJA DE PREINSCRIPCIÓN						
LH URRUTIKOA (At.Personas Sit.Dep) / FP DISTANCIA (At.Personas Sit.Dep)			nnnn-nnnn+1 ikasturtea / Curso nnnn-nnnn+1			
Ikaslearen datuak / Datos del alumno/a						
NAN(AIZ) / DNI(NIE)		SSZ / NSS		HNA / DIE 2093506E		
1.abizena / 1er Apellido Abizena		2.abizena / 2do Apellido Bigarrena		Harr.Telefonoak / Tifnos.Contacto 9456986		
Izena / Nombre Izena		HPB / NEE Ez / No		Posta elektronikoa / Correo electrónico haurreskola01@gmail.com		
Helbidea / Dirección Agurain (CL) 1		P.K. / C.P. 01240		Udalerrria / Municipio Alegria-Dulantzi		
2020-2021 ikasturtean egin nahi dituen ikasketak / Estudios a realizar en el curso 2020-2021						
Sarbide mota / Tipo de acceso DBH / ESO			Orduak guztira / Horas totales 198			
Eskatutako moduluak lehentasun-ordenan jarrita / Módulos solicitados por orden de preferencia						
Modulua / Módulo		Eredua / Modelo	Orduak / Horas	Ikastetxea (Lehen. 1) / Centro (Pref 1)	Ikastetxea (Lehen. 2) / Centro (Pref 2)	Edze. Ikastetxea / Cual. Centro
Gizarte-trebetasunak / Destrezas sociales		A	99			Bai / Sí

3 Esker ematea.

Jasotako arreta eskertzen dugu eta onarpen eskaera Internet bidez egiteko dokumentu hau erabilgarria izan izana espero dugu.

ESKERRIK ASKO.